

BAM

Begoñako Andra Mari

IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO

***ARAUAK, ROLAK
ETA EKINTZA-
PLANA LARRIALDI
BATEAN***

SUTE BATEN AURREKO JARDUNBIDEA

- Sute bat ikusiz gero (edo bestelako arrisku-egoeraren bat), hari aurre egiten saiatu aurretik, jakinaraz iezaiozu berehala atezainari edota eskolako irakasleren bati eta itxaron jarraibideei.
- Eraikina husteko agindua badago, ez hartu tresna pertsonalak (ez bada horretarako denbora dagoela adierazten zaizuela) eta hustu eraikina, ikasgelako arduradunaren jarraibideen arabera, betiere (ia beti irakasleak).
- Bakarrik bagaude ikasgelan (edo bestelako lan-eremu batean), eraikinetik atera aurretik, itxaron solairuko arduradunaren jarraibideei; solairuko arduradunik ezean, galdetu irakasleren bati zer gertatu den eta eraikinetik atera behar bada, nondik egin behar den.
- Ebakuazioa beti egingo da paretaren ondotik (eskulekuak libre utzita).
- Ebakuazioak dirauen artean, ez dugu atzera egingo inoiz, eta adostutako lekuan elkartuko gara (patioan).
- Zenbait aholku orokor:
 - ✓ Zure arropak su hartzen badute, etzan lurrean eta hasi biraka.
 - ✓ Ke handia badago, ibili lurraren paretik eta babestu aho-sudurrak zapi batekin (hobeto hezea bada).
 - ✓ Irteera ezin bada erabili eta harrapatuta bazaude, itxi gela, jarri eskuzapi bustiak ate azpian eta komunikatu kanpokoekin. Jakinarazi hor zaudela keinuak eginez leihotik.
 - ✓ Saiatu erregaiak sutatik urruntzen.
 - ✓ Ez hartu behar ez den arriskurik.
 - ✓ Sutearen kontrolari buruzko zalantzarik izanez gero, eutsi ahalik eta gehien (itxi gelako atea), alde egin gunetik eta eskatu kanpoko laguntza (112).

GOGORATU:

- Ez urduritu, ez hasi oihuka ez korrika.
- Lagundu behar duenari.
- Ez erabili igogailurik.
- Jakin non den gertaera, horren arabera jokatu ahal izateko.
- Jo ezarritako elkargunera, zenbaketari ekin ahal izateko.

GUTAKO BAKOITZAK EGIN BEHARREKOA

Gure egitekoa aldatu egingo da, larrialdia gertatzen denean gauden lekuaren arabera. Zehatz ditzagun, bada:

IRAKASLEA

Ezbeharra gertatzen denean, eraikineko ikasgelaren batean eskolak ematen ari den irakaslea da.

ALARMA- ETA EBAKUAZIO-TALDEA

Talde horretako kide izango da solairu bakoitzean ebakuazioa eragin duen gertaeratik gertuen dagoen gelan eskolak ematen ari den irakasle oro, solairu bakoitzeko bat badago (hura izango da ebakuazioaren arduraduna). Hala ere, segurtasuneko buruak irakasle horri jakinaraziko dio Alarma eta ebakuazio Taldeko kide gisa duen egoera.

ATEZAINITZA

Atezaintzako ardura Robertok edo Albertok izango dute, eta haiek egon ezean, segurtasun-arduradunak.

IDAZKARITZA

Idazkaritzako ardura **Javierrek** eta une horretan bertan den pertsona orok izango dute (Ana, Patricia, Aitziber, Olaia, etab.).

LEHENENGO ESKU-HARTZERAKO TALDEA

Arrisku-egoeraren unean irakaskuntzarik edo tutoretzarik ez duten irakasle guztiek parte hartu ahal izango dute talde horretan, baldin eta segurtasun-buruak horretarako eskatzen badie.

LIBURUTEGIA

Liburutegiko ardura Elenak edo Monikak izango du.

SEGURTASUN-ARDURADUNA

Jorge Txana

EKINTZA-PLANA

Alarmak joko du. Gertaera probablearen tokian entzungo da eta aldi berean, kontrol-panelean azalduko da, argi- eta soinu-seinaleen bidez.

Atezainak egoeraren berri emango dio segurtasun-arduradunari, eta bien artean, gertaeraren egiazkotasuna eta irismena egiaztatuko dute.

Gertaera egiaztatzeko bidean, segurtasun-arduraduna irakasle-gelara joango da lehen esku-hartzeko taldea osatzeko. Denak batera, gertaeraren tokira joango dira (lehen esku-hartzeko taldeak ezbeharraren fokuan jarduteari utziko dio, sua itzaltakoan, edo segurtasun-arduradunak hala esandakoan).

Hori egindakoa, eta eraikina hustu beharra badago, atezaina kontrol-panelera joango da eta guztiek ezagutuko duten alarma orokorra joko du (edo ez). Era berean, egoeraren berri emango dio SOS DEIAKi.

Atezainak egoeraren berri emango du Idazkaritzan.

Ondoren, atezainak irekita utzi beharko ditu erabili beharreko larrialdi-ateak, *giltza guztiak itxiko ditu (gasa, argindarra, etab.), eta igogailua geldiaraziko du. (*Urrats hau irudikatu egingo da simulazioan, kontuan hartuta zenbat eragozpen eragiten dituen benetan eginez gero).

Aldi berean, segurtasun-arduraduna solairu guztietatik pasatuko da alarma- eta ebakuazio-taldeko kideekin hitz egiteko. Alarma- eta ebakuazio-taldeko partaide direla jakinaraziko die eta haien ardura dela solairua hustea. Txaleko islatzailea, txilibitua eta walkie-talkiea emango dio bakoitzari, ebakuazioa errazteko; gertatutakoaren berri emango die eta ebakuazioan jarraitu beharreko plana jakinaraziko die. Une horretatik Aurrera, alarma- eta ebakuazio-taldeko kideek ebakuazioa bideratuko dute, nor bere solairuan.

Horretarako, solairu horretako irakasle guztiei emango die gertaeraren berri, zeinek bere gelako ebakuazioa presta dezan. Horrela, dena izango dute prest aurreko solairuko arduradunak (alarma- eta ebakuazio-taldeko kideak) husten hasteko esaten dienerako; hartara, ebakuazioa modu azkar eta eraginkorrean egingo da.

Irakasleak, solairuko arduradunak egoeraren berri emandakoan, ikasgela prestatu beharko du ebakuaziorako. Egiten ari direna uzteko esango die, eta ilaretan jartzeko,

eraikinetik ateratzeko abisua jasotzen dutenenean, ahalik eta azkarren eta eraginkorren egiteko. Irakasleak leihoak itxi beharko ditu, eta zenbat ikasle dituen ikasgelan zenbatuko du (ondoren, kanpoan berriro zenbatu beharko ditu, eraikinetik ateratakoan). Ikasgela hustutakoan, ateak itxi egingo ditu eta adostutako ikurra dagokion lekuan.

Solairu osoa hustutakoan, solairuko arduradunak ez dela inor gelditzen egiaztatu beharko du, eta ikasgela guztiek dituztela ateak eta leihoak itxita. Izu-barradun ateak itxiko ditu eta ondoren, ondorengo solairuko arduradunari jakinaraziko dio, hark bere solairua hustu dezan.

Eraikina utzi aurretik, segurtasun-arduradunak solairu guztien azterketa azkarra egin beharko du.

Ebakuazioa, eta beraz, simulazioa, burututzat emango da kanpoan adostutako puntuan gaudenean guztiok eta ariketan egin beharreko pertsonen egiaztapen guztiak egiten ditugunean.

Ariketa burututakoan, berriro deituko dugu SOS DEIAKera, horren berri emateko, eta ikasle eta irakasleak beren jardueretara itzuliko dira. Ondoren, prebentzio-zerbitzuko koordinatzailea (MUTUALIA) eta segurtasun-arduraduna elkartuko dira, simulazioa ebaluatzeko.